

ERABAKIA, 2021eko URRIAREN 5ekoa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, DOKTORE BERRIAK DOKTOREGO ONDOKO UPV/EHUko PRESTAKUNTZA PROGRAMETAN SARTU ARTE KONTRATATZEKO DEIALDIA, "DOKBERRI" 2021, BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2021eko apirilaren 19an, doktore berriak doktorego ondoko UPV/EHUko prestakuntza programetan sartu arte kontratazioa egiteko deialdia, "DOKBERRI" 2021.

Behin eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian argitaratu zen, 2021eko irailaren 8an, onartutako eta ukatutako eskabideen behin-behineko ebazpena, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua onartu dela/atzera egin dela adierazteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) irailaren 17ko bileran aurkeztutako eskabideak aztertu ditu eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko errektoreordeari Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian argitaratzeko. Aurkeztutako alegazioak urrian aztertuko ditu IGBBk.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- 2021eko urriaren 6tik 18ra bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten errektoreordetzaren webgunean, "Dokumentuak" erlaitzean, eskatutako agiriak. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

Hirugarrena.- 2021eko azaroaren 1ean hasiko dira lanean. Kontratuak onartzen dituzten pertsona guztiek honako dokumentazio hau bidali beharko dute, posta elektronikoen bidez, PDF formatuan, helbide honetara: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

- Betebeharrak onartzen direla jasotzen duen dokumentua.
- Datu pertsonalen fitxa
- Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- Doktore tituluaren kopia edo tituluari dagokien homologazio agiria.
- Lanean hasteko agiria (2021eko azaroaren 1etik).
- Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek, lan kontratua formalizatzen den egunean, Espainian bizi eta lan egiteko indarrean dagoen aurretiazko administrazio baimenaren kopia aurkeztu beharko dute, betiere Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorrita (abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan).

Laugarrena.- Laneratzea atzeratu nahi duten onuradunek lehenbailehen jakinarazi beharko diote, idatziz, erakundeari: rrhh-inves.dgi@ehu.eus . Ondoren, paperean aurkeztu

beharko dute eskaera, UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bitartez. Eskabide hori formatu librean bidali ahal izango da, eta erregistratzeko epea 2021eko urriaren 15ean amaituko da.

Bosgarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Seigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du eta beste bide hauek erabil daitezke haren kontra egiteko, baina inola ere ez aldi berean:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2021eko urriaren 5ean.

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

KODEA	NAN	ZIENTZIA-ARLOA	EKARPENAK	LAN-PLANA	NAZIOARTEKO TESIA	EUSKARAREN EZAGUTZA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
DOCREC21/24	72695820L	Arteak eta Giza Zientziak	13	6	10	5	34	EMANDAKOA
DOCREC21/25	45892230P	Arteak eta Giza Zientziak	10	6	10	5	31	UKATUTAKOA
DOCREC21/03	79000862W	Zientziak	100	10	10	10	130	EMANDAKOA
DOCREC21/05	78994523B	Zientziak	42	10	10	5	67	EMANDAKOA
DOCREC21/02	16091174Y	Zientziak	40	10	10	5	65	EMANDAKOA
DOCREC21/01	72840804B	Zientziak	36	10	10	5	61	EMANDAKOA
DOCREC21/18	45948900Y	Zientziak	30	10	10	3	53	UKATUTAKOA
DOCREC21/30	22755083X	Zientziak	24	10	10	5	49	UKATUTAKOA
DOCREC21/26	48682011G	Zientziak	32	10	0	0	42	UKATUTAKOA
DOCREC21/10	72524343F	Zientziak	16	10		10	36	UKATUTAKOA

KODEA	NAN	ZIENTZIA-ARLOA	EKARPENAK	LAN-PLANA	NAZIOARTEKO TESIA	EUSKARAREN EZAGUTZA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
DOCREC21/06	50885670X	Zientziak	12	10	10		32	UKATUTAKOA
DOCREC21/07	79000428M	Osasun-Zientziak	42	10	10	10	72	EMANDAKOA
DOCREC21/20	72523508T	Osasun-Zientziak	34	5	10	10	59	EMANDAKOA
DOCREC21/11	78937812H	Osasun-Zientziak	27	10	10	10	57	UKATUTAKOA
DOCREC21/12	16085334P	Osasun-Zientziak	25	10	10	10	55	UKATUTAKOA
DOCREC21/04	71347503P	Osasun-Zientziak	29	10	0	0	39	UKATUTAKOA
DOCREC21/09	44642257Q	Gizarte eta Lege Zientziak	30	10	10	8	58	EMANDAKOA
DOCREC21/21	72527331M	Gizarte eta Lege Zientziak	20	10	10	8	48	UKATUTAKOA
DOCREC21/08	72829042W	Gizarte eta Lege Zientziak	20	10	10	3	43	UKATUTAKOA
DOCREC21/23	45676737W	Ingeniaritza eta Arkitektura	74	8,75	10	3	95,75	EMANDAKOA

KODEA	NAN	ZIENTZIA-ARLOA	EKARPENAK	LAN-PLANA	NAZIOARTEKO TESIA	EUSKARAREN EZAGUTZA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
DOCREC21/16	44348802H	Ingeniaritza eta Arkitektura	68	8,75	10	3	89,75	EMANDAKOA
DOCREC21/19	45667774D	Ingeniaritza eta Arkitektura	60	7,25	10	10	87,25	UKATUTAKOA
DOCREC21/14	16092224K	Ingeniaritza eta Arkitektura	48	9	10	5	72	UKATUTAKOA
DOCREC21/29	44340379J	Ingeniaritza eta Arkitektura	40	8,5		10	58,5	UKATUTAKOA
DOCREC21/17	45820978X	Ingeniaritza eta Arkitektura	16	8,5		5	29,5	UKATUTAKOA